



HAUR DANBORRADA

ENTSEGU EGUNAK ETA MATERIALAREN PRESTAKUNTZARAKO ARGIBIDEAK

Apirilaren 26an Laudioko Haur Danborrada ospatuko dugu 17:30ean Herriko plazatik abiatuta. Programa aurrerago bidaliko dugu.

ENTSEGU OROKORRA APIRILAREN 25EAN

Parte hartuko duten partaide guztien entsegu orokorra burutuko dugu apirilaren 25ean, 16:30ean, Bigarren Hezkuntzako jolastokian. Ikasleak gurasoen ardurapean egongo dira.

JANTZIEN PRESTAKUNTZA ETA MATERIAL BANAKETA

Danborrariak alkondara eta praka zuria eta zapata eta txapela beltza jantzi beharko dute danborrada egunean.

Txapelarako borlak apirilaren 18an, osteguna, 16:30ean. Txalekoak eta danborrak danborradaren egunean banatuko dira.



***Sukaldariak,** Haur Hezkuntzako 2 eta 3 urteko ikasle eta gurasoek, amantala, praka, alkondara eta zapatilla **zuriak** jantzi beharko dituzte, eta egurrezko goilara eta sardezka ekarri beharko dute danborrada egunean.*

***Sukaldarien txanoak** eta bestelakoak apirilaren 18an 16:30ean banatuko dira 4 eta 5 urtekoen jantokian.*



Parte hartuko duten gainerako guraso eta helduak baserritarrez jantzita etorriko dira danborradara.



MATERIAL ITZULKETA

Txalekoak, danborrak eta makilak danborrada bukatu bezain laster jasoko dira Aldai plazan.

Danborrarien borlak eta maileguan utzitako arropak maiatzaren 9an jasoko ditugu 16:30etik 17:30era Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urtekoen jantokian. Ikaslearen izena idatzi, arren, itzultzeko dakarzuen poltsan.

LAGUNTZAILEAK

Ekintza hau burutu ahal izateko familien laguntza ezinbestekoa da. Ekintza honetan laguntzea LHko 2.,3. eta 4.mailako familiei dagokien arren, prest dagoen edozeinek lagun dezake.

izena eman 